

## **2010EKO OTSAILAREN 26AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hogeita sei

**HILABETEA:** Otsaila

**URTEA:** Bi mila eta hamar

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko hamarrak eta laurden.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe

Jon Kortaberria Lasa

Fernando Boada González

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2010eko otsailaren 1eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

### **2.- OBRAK KONTRATATZEKO OBRAK LIZITATZEA.**

- Irakaskuntza guneak egokitzea: udal Euskaltegia eta HHlrako gelak (helduen hezkuntza iraunkorra) (E PLANA).

Hirigintza batzordeak proposatuta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.-**, “Irakaskuntza guneak egokitzea: udal Euskaltegia eta HHlrako gelari buruzko obrak (helduen hezkuntza iraunkorra)” kontratatzeke deialdia egitea, lehiaketa arautuko duen baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onartuz.

1.- Xedea: ” Irakaskuntza guneak egokitzea: udal Euskaltegia eta HHlrako gelari buruzko obrak (helduen hezkuntza iraunkorra)” kontratatzea.

2.- Prozedura: irekia publizitatearekin. Premiazko izapidetzea.

3.- Aurrekontua: 516.288,17 €, BEZ barne.

4. Clasifikazioa: C taldea, 6 Azpitaldea eta c kategoria.

5.- Esleipen-irizpideak:

- . Prezioa: 60 puntu.
- . Obraren azterketa. Lan egitaraua: 30 puntu.
- . Obrari atxikitako pertsonala eta asistentzia teknikoak: 10 puntu.

6.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian ([www.beasain.net](http://www.beasain.net)). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.-Behin betiko bermea: Adjudikaziodunak kontratua sinatu aurretik aurkeztu behar duen bermea esleipenaren aurrekontuko %5aren balioa duena izango da, BEZ kanpo.

8.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

9.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 13 egunetan.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerik administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

- Udal jabetzakoak diren lokalen hobekuntza: ludoteka, udaltzaingoa eta udaletxearen beheko oina. (E PLANA).

Hirigintza batzordeak proposatuta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.-**, “Udal jabetzakoak diren lokalen hobekuntza: ludoteka, udaltzaingoa eta udaletxearen beheko oina exekutatzeko obrak kontratatzeko deialdia egitea, lehiaketa arautuko duen baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onartuz.

1.- Xedea: "Udal jabetzakoak diren lokalen hobekuntza: ludoteka, udaltzaingoa eta udaletxearen beheko oina" kontratatzea.

2.- Prozedura: irekia publizitatearekin. Premiazko izapidetzea.

3.- Aurrekontua: 944.241,83 €, BEZ barne.

4. Clasifikazioa: C taldea, 6 Azpitaldea eta c kategoria.

5.- Esleipen-irizpideak:

. Prezioa: 60 puntu.

. Obraren azterketa. Lan egitaraua: 20 puntu.

. Obrari atxikitako pertsonala eta asistentzia teknikoak: 15 puntu.

. Epea: 5 puntu.

6.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian ([www.beasain.net](http://www.beasain.net)). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.-Behin betiko bermea: Adjudikaziodunak kontratua sinatu aurretik aurkeztu behar duen bermea esleipenaren aurrekontuko %5aren balioa duena izango da, BEZ kanpo.

8.- Proposamen eredia: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

9.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 13 egunetan.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Bozketa eginda, PSE-EE/PSOeko ordezkariak esan du proposamena ez duela onartzen, aurreko gobernu batzordean adierazitako arrazoiak dela medio, hau da, obra horien artean ez delako politikoentzako gelarik aurreikusten.

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, gaia gehiago absolutuarekin onartu da.

- Ezkierdi parkea urbanizatzeko obrak

Hirigintza batzordeak proposatuta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.-** “Ezkierdi parkea urbanizatzeko obrak” kontratatzeako deialdia egitea, lehiaketa arautuko duen baldintza tekniko eta administratiboen pleguak onartuz.

1.- Xedea: “Ezkierdi parkea urbanizatzeko obrak” kontratatzea.

2.- Prozedura: negoziatua publizitaterik gabe.

3.- Aurrekontua: 83.297,35 €, BEZ barne.

4. Clasifikazioa: ez da eskatzen.

5.- Esleipen-irizpideak: merkeena eskaintzen den prezioa.

6.-Behin betiko bermea: Adjudikaziodunak kontratua sinatu aurretik aurkeztu behar duen bermea esleipenaren aurrekontuko %5aren balioa duena izango da, BEZ kanpo.

7.- Proposamen eredia: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira gonbidapena jasotzen duten hurrengo egunetik kontatzen hasita 13 egunetan.

9.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**3.- HITZARMENA.** ETORLUREkin hitzarmena udalerrian dauden eta lur-bankuari lagatako lursailetan egin beharreko hobekuntza lanak finantzatzeko.

Ezagutzera ematen da ETORLUREkin sinatzea proposatzen den hitzarmena:

**“LANKIDETZA HITZARMENA, BEASAINGO UDALAREN ETA ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA, SAU SOZIJATEAREN ARTEKOA, LUR BANKUARI**

## **LAGATAKO UDALERRIKO PARTZELETAN EGIN BEHARREKO HOBEKUNTZA LANAK FINANTZATZEKO**

Beasainen, 2010eko urtarrilaren xx(ean).

### **BILDUTA**

Alde batetik, **FLORENTINO UGALDE ATXAGA JAUNA**, Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Gorenaren ETORLUR GIPIUZKOAKO LURRA SAU Sozietate Publikoaren Gerente gisa, emanak zaizkion ahalmenen erabilpenean Fermin Lizarazu Aramayo Notario jaunaren aurrean, 2007ko irailaren 24ean emandako 4.350 zenbakia duen protokolodun botere eskrituraren arabera.

Eta bestetik, **PATXI PLAZAOLA MUGURUZA JAUNA**, Beasaingo alkate moduan, Udaltzako 2009ko XXXXXren XX(e)ko bileran horretarako ahalordetuta, Itziar Arostegi Plazaola udal idazkariak emandako ziurtagiri bidez egiaztatu duen bezala.

Parte hartzen duten alde biek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko lege gaitasuna eta, hala,

### **AZALTZEN DUTE**

**I.-** 2009ko ekainaren 11n, parte hartzen duten alde biek lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zutela, elkarrekin udalerriko landa eremuak sustatzeko behar ziren ekintzak bultzatzeko eta Etorlurren Lur Bankuaren bidez lurak modu eramangarrian kudeatzeko.

**II.-** Aldeek hasi zuten lankidetzaren ondorioz eta Udalaren bitartekaritza lan handiari esker, 2009ko urriaren 2an Etorlurrek kontratu pribatu bat sinatu zuela Martin Urdangarin Arteaga jaunarekin, hark bere Usurbe baserriaren 6,6934 hektareako lursailen gozamina Lur Bankuari laga ziezaion.

**III.-** Lur Bankuan jasotako lurak nola dauden ikusita, hirugarrenei erabiltzeko utzi aurretik hobekuntza batzuk egin behar direla eta Udalak hobekuntza horiek finantzatzen lagundu nahi duela.

**IV.-** Horregatik guztiagatik, parte hartzen duten alderdiek jakitun dira ekintza horiek eta etorkizunean aurreikusita daudenak finantzatu egin behar direla eta hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, hauek direlarik

### **KLAUSULAK**

#### **Lehena.- Helburua**

Dokumentu honen helburua da lankidetzarako esparru bat antolatzea Beasaingo Udalaren eta Etorlur Gipuzkoako Lurra SAU sozietatearen artean, Etorlurren Lur Bankuan dauden udalerriko lursailetan egin beharreko hobekuntza lanak eta

ingurumena zaintzeko lanak finantzatzeko eta gauzatzeko. Hauek dira egin beharreko lanak:

### **Lana**

1. Cierre perimetral de la parcela.
2. Canalización del agua e instalación de depósito y abrevadero.
3. Abono de la parcela.

### **Bigarrena.- Udalaren ekarpena**

1. Lehen klausulan deskribatutako hobekuntza horientzako udal ekarpena Beasaingo Udalak egingo du, era honetan:

- a) Ekarpeneren % 45, hau da, **6.975** euro, hitzarmen hau sinatutakoan emango du, hitzarmena zenbateko horren ordainketa gutuna delarik.

Gainerako %55a, hau da, 8.525 euro, Udalak ordainduko du Landa Garapenerako Goimen Elkartearen diru-laguntza jasotzen duenean; diru-laguntza hori izapidetuko dute elkartearen 2011ko aurrekontuaren kontura.

2. Udalak b) atalean azaldu zenbatekoa ordaintzeko finantzaketa lortzeko gestioak egiten dituen bitartean, Etorlurrek hartuko ditu bere gain zenbateko horiek, erakundearen aurrekontuaren kargura.

3. Udalak klausula honetako 1. puntuko b) atalean adierazitako ordainketak egin ditzan, Etorlurrek dokumentu hauek igorri beharko dizkio Beasaingo Udalari:

- Etorlurren eskaera, ordaintzeko eskatuz.
- Adjudikazio egiaztagiria, obra ziurtagiriak, fakturak edo horien ordezkoko agiriak, lanak gauzatu direla egiaztatzen dutenak betiere.

4. Beasaingo Udalak Etorlurri eska diezaioke, beharrezkoa iruditzen bazaio, beharrezkoa iruditzen zaion dokumentazio osagarria aurkezteko, eginiko gastuak eta horiek zertan egin diren egiaztatzeko.

### **Hirugarrena.Etorlurren betebeharrak**

Etorlurrek hitzarmen honetako lehen klausulan adierazitako obrak kontratatuzera konprometitzen da eta, gainera, betebeharrak hauek bete beharko ditu:

1. Beasaingo Udalari egin nahi dituen egiaztapen guztiak ahalbidetzea, finantzatutako jardueren garapenari eta gauzatzeari buruz eska diezaiokeen informazio guztia emanez.

2. Jasotako fondoen erabilera justifikatzen duten agiriak gordetzea, egiaztapen eta ikuskapenen bat egonda ere.
3. Jasotako fondoak itzultzea, hitzarmen honetako bosgarren klausulak jasotzen diren kasuetan.

### **Laugarrena.- Fondoak itzultzea**

Jasotako fondoak itzuliko dira eta berandutzako interesa eskatuko da bigarren klausulan adierazitako ekarpenaren ordainketa bakoitza egiten den unetik bertatik, kasu hauetan:

1. Udal ekarpena erabili behar zen hartarako ez erabiltzea.
2. Justifikatu beharrekoa ez justifikatzea edo eskas justifikatzea.
3. Udalak egin nahi dituen egiaztapen eta kontrol jardueri erresistentzia, aitzakia, oztopoa eta ezetza ipintzea eta ematea.
4. Eta, oro har, Etorlurrek hitzarmen honetako hirugarren klausulan adierazitako betebeharren bat ez betetzea.

Fondoak itzultzea baldin badagokio, kobratzeko egon litezkeen kantitateak kobratzeko eskubidea ere galdu egingo da.

### **Bosgarrena.- Iraupena.**

Hitzarmen hau formalizatzen den egunean sartuko da indarrean eta ondorioetan indargabetuta geratuko da lanak likidatzen direnean.

### **Seigarrena.- Amaitzea**

Hitzarmen hau amaituko da aurreko klausulako iraupena bukatzen denean edo suntsitzen denean.

Aldeetako batek hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste aldeak eska diezaioke behar bezala betetzeko edo hitzarmena suntsitzeko.

Eta horrela ager dadin eta ados dauden seinale, bi aldeek hitzarmen honen bina ale sinatu dituzte, hasieran adierazitako egunean eta lekuan.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE) esan du bera ez dagoela ados planteamendu honekin, pentsatzen dutelako Udalari ez zaiola ezer kostatu behar.

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (EAJ, ALKARBIDE, EB, PP)

Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak. 0

Horren ondorioz, ETORLUREkin hitzarmena sinatzea onartu da.

#### **4.- ESKAERA ETA GALDERAK.**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarrak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.